Urretxuko udala

SANTA LUTZI FERIA 2026
ARAUDI OROKORRA

1.-Eguna: 2026ko abenduaren 13a

2.-Lekua: Hainbat gune prestatuko dituzte antolatzaileek, eta produktuen arabera sailkatuko dituzte postuak. Antolatzaileak beraiek arduratuko dira salmenta postuak jartzeaz, Gernikako Arbola plazan eta Iparragirre kalean. Abenida eta Areizaga-Kalebarreneko postuak erakusleek beraiek ekarri beharko dituzte eta ezinbestekoa da postu estaliak izatea. Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari haren kokapena.

3.-Ordutegia: Postuak eta salmentarako produktuak goizeko 9:00etarako jarrita egon beharko dute Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari zein ordutan sartu daiteken bere kokapenera. Ezingo dira postuak 15:00ak baino lehenago jaso.

4.-Izen-ematea: 2026ko azaroaren 5etik 15era.

5.-Izena emateko behar diren agiriak:

-Instantzia ofizial batetan**:**

- Eskatzailearen datu pertsonalak: izen-abizenak, NAN, helbidea, emaila eta telefonoa.
- Salgai ipinitako produktuaren izena eta tipologia.
- Produktuaren kalitatearen eta jatorriaren bereizgarria (izanez gero).
- Produktuaren osasun-erregistroaren zenbakia (gizakiak kontsumitzeko elikagaiak direnean).
- Nekazaritza ustiapenerako txartela, fruta, apaindura-landare eta barazkien salmentaren kasuan (fruta edo barazki sariketako partehertzaileek, kontu korrontearen zenbakia adierazi)
- Janari-manipulatzailearen karneta (ontziratu gabeko elikagaien kasuan).
- Jarduera ekonomikoen zergan alta hartuta egotea.
- Gizarte Segurantzaren araubidean alta hartuta egotea eta kuota ordainduta edukitzea.
-Elikagai ekoizleen kasuan salmentarako beharko dituzten metro kopurua
-Artisauen eta beste produktuen kasuan postu estali propioa duten edo ez eta haren neurriak.
-Eskatzailearen ordez autorizatuta egon daitezken pertsonen identifikaziorako dokumetazio baliagarria.
-Ibiligailuan salmenta bada: ibilgailuaren zirkulazio baimena, erabiltzailearen gida baimena eta I.A.T.a gaindituta duenaren agiria.

-Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira**. Irakurri ezin diren dokumentuak aurkezten dituzten eskaerak ez dira tramitatuko.**

6.-Aukeratzeko irizpideak:

- Ekoizle-saltzaileen jatorria: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta abarretako ekoizleei emango zaie lehentasuna, hurrenkera horretan bertan.
- Produktuen tipologia: bertako produktu desberdinak erakusteari emango zaio lehentasuna.
- Produktuen egiteko modua: artisau-produktuak lehenetsiko dira produktu komertzialen aldean.
- Ferian parte hartzaile gisa duten antzinatasuna: aurreko aldietan feriara bertaratu direnek izango dute lehentasuna.

Antolatzaileek irizpide horiek kontuan hartuta egingo dute eskabideen arteko aukeraketa, eta ferian parte hartuko dutenei aldez aurretik jakinaraziko diete.

7.-Baimena eskuratzeko baldintzak:

- Dagokion prezio publikoa ordaintzea eskuratutako postuaren komunikazioan adieraziko den epean.
  - **Udalak berak, azpiegitura jartzen dituen postuetan 19,00€ metro lineal edo zatiko egunean**
  - **Bestelako postuak 6,30€ metro karratuko edo zatiko, egunean**
  - **Postuak ibilgailuan 82,30€, egunean**
- Feria egunean, saltzaileak dagokien postuan kokatzeko ardura dutenei baimena erakustea.
- Feriara eramateko baimendutako produktu hori bakarrik saldu ahal izango du eskatzaileak.

8.-Tasa/prezio publikoa ordaitzearen salbuespenak:

Aldez aurretik salbuespena eskatzen bada, eskualdeko artisau eta ekoizleen salmenta postuak salbuetsita egongo dira. Udal interesekoa diren talde kultural, kirol edo sozialek salbuetsita egongo dira eta Ikastetxeek, beraien jardueraren finantziaziorako jartzen dutenean, salbuetsita egongo dira.